



AMUA

AXUT.EUS

ekoizpen laguntzaileak: OARA, DRAC Nouvelle Aquitaine, HAMEKA eta KULTURA BIDEAN - Euskal Hirigune Elkargoa, ARTEDRAMA Arte Eszenikoen Plataforma. Sustengutak: Eusko Jaurlaritza, Région Nouvelle- Aquitaine, Département des Pyrénées-Atlantiques, Euskal Hirigune Elkargoa, EKE, Hendaia, Hiriburu eta Larzabaleko hiriak.

AMUA

00. AURKIBIDEA

01. AXUT!	03
02. SINOPSIA ETA ERRONKAK	04
03. ANTZEZLANA	06
04. MEDIAZIOA	10
05. FITXA ARTISTIKOA	11
06. EGUTEGIA	13
07. KONTAKTUA	14

AMUA

01. AXUT!

*Axut!: (Ipar.) Erronka adierazteko erabiltzen den hitza.
(Elhuyar hiztegiak)
Axut egin (1955) erronka jo, ekaitzan axut eginez.
(Sarasola hiztegia)*

Axut! euskarazko antzerkia garatzeko xedearekin sortu dugun kolektiboa da. 25 urtez eman dugu antzerkia euskaraz eta frantsesez, baina orain, euskara hutsean baino, euskara betean ekitea erabaki dugu. Ez garelako hutsetik mintzo, betetik baino.

Euskal antzerki garaikidea eta herrikoa dugu helburu.
Ibilbide berriaren erronkari bi galderekin heldu diogu:
Nori mintzatzen gatzaizkio?
Nori eskaintzen diogu gure ondasun guztia?

Antzerkia herri baten isla bada, garai jakin batean, orduan eskema propioak sortzeko beharra dugu: eskema ekonomikoak eta artistikoak, bitartekaritza eta heziketakoak, komunikazio eta ekoizpenekoak, teknikoak, saretze eta harrerei lotutakoak...

Nola egingo dugu kexatzeko, maitatzeko, haserretzeko, oihukatzeko, iraintzeko eredurik ez badugu?
Zerk sortuko ditu ereduak arteak ez bada?

Gure arteak egiten gaitu euskaldun, euskaraz sortu eta pentsatutako arteak.
Etxekoak gara, etxekoei mintzo, eta horrek munduko egiten gaitu.

Ximun Fuchs, Manex Fuchs eta Arantxa Hirigoyen.

02. SINOPSIA ETA ERRONKAK

"Maitasunaren kontra egiteak sortzen digun ezinegonak eta minak adierazten du maitasuna maitasuna baino askoz gehiago dela. Lilura bukatu da, hautsi da anfora..."

Lorea Agirre Darronsoro

Politika eta maitasuna esaldi berean ikusteak, harridura eragin lezake. Egia da legebiltzarrek (erabakigune politiko ofizial gehienek oro har) ez dutela maitasunaz edo sentimenduetaz jarduera ofizialik. Dakigunez, ez da maitasun ministrorik, edo sentimenduen sailbururik. Baina horrek ez du erran nahi erabaki edo pentsaera politikoan sentimenduek ez dutela eraginik. Ez du erran nahi erabakiguneetako ardatz nagusiek (izan ekonomia, zor publikoa, imigrazioa, lana, gerla edo soziala) ez dutela eragin zuzen eta markaturik norberaren sentimendu edo maitasun harremanetan. Guztiz aurkakoa. Erabat lotuak dira eta bereizi ezinak.

Baina, betidanik sentimenduak eta emozioak res-publica-tik baztertzen saiatu gara. Politikan zalantza, duda, negarra, poza, ahultasuna ez da serioa. Konfiantza galarazten dute. Baina hainbeste sufriarazten, pozten, betetzen edo kezkatzen gaituen gai hau, eztabaida politikotik edo elkarbizitzarako erabakiguneetatik baztertzen baldin bada, zertarako ote da? Zer da estaltzen eta gordetzen dena? Hain beldurgarria ote da maitasuna? Eta subertsioaren ohantzea maitasuna balitz...

SINOPSIA

Anak, bere gaztaroko bi maitale ohi gonbidatu ditu Iratiko etxola batera. Azken asteburu bat, izan zirenaren eta amestu zutenaren izenean. Aitor eta Txolarre etorriko dira bai, baina bata eta bestea ez dira jakinean hiru izanen direla. Elkar asko maitatu dute, elkar asko maite dute, baina zaila da hain intimoa den hori partekatzea. Esklusibotasuna, erromantizismoa, egoa, jabetza, ohitura, kultura eta hezkuntza alde batera uzteak, asteburu bakar batentzat bada ere, barne kalapita galantak eraginen ditu. Oihan basatia, oreinak eta onddoak tarteko, bakoitzak pentsatzen duenaren, erraiten duenaren eta egiten duenaren arteko distantziak pertsonaiak biluztuko ditu. Askatasunaren utopia azkenekoetan dela errana izan zaigu hainbatetan, baina maitasunaren izenean, noraino joan gaitetzke?

AMUA

ERRONKAK

Maitasunak egiten gaitu, maitasunak sortzen gaitu, eta gure bizitzaren zuku handiena hortara dedikatzen dugu. Ametsak, erronkak, zauriak eta bizipenak maitasuna deitzen diogun horrek markatzen ditu. Baina maitasuna ez balitz eraikuntza guzietatik at dagoen zer hori? Ez balitz erabat senezkoa, animalia edo basa? Naturaz edo intuizio hutsez gure baitan dagoen indar kontrolaezin hori? Ikasi gabe sortzen da maitasuna? Musu truk ematen eta hartzen den opari bat? Mundu zeken eta ilun honetatik salbatzen gaituen helduleku bakarra? Ez arraza, ez klase, adin edo genero baldintzarik gabeko bidea ez al zen maitasuna?

Maitasuna kulturala eta pentsaera politiko baten ondorioa dela planteatzeak gure oinarri eta "egia" guziak uzkaitez ditu. Eta galderek beste galdera uholde bat suposatzen dute. Eta zalantzak. Erromantizismoa, eternitatea, magikoa izatearen ideia, jabetza, baita etxea, jabetza pribatua... ere. Norberak bere bihotz eta haragiz eraikitzen duen guzia. Ilusioaren barniza kiskaltzen da, maitasunaren eskuak zimurtzen dira. Publizitateak eskolara, zinematik lagunartera, eredu oso idealizatu eta mugatu bat irakasten zaigu maitatzeko eta maitatzeko moldea antzetzeko. Eta eredu kulturalak, baloreak, bizi bideak markatzen ditu, autopistak balira bezala. Istripuraino.

Ez ote da garaia gaia jorrazteko eta galdetzeko zein den gure eredu? Edo zein eraiki nahi duguna, suposatzen duen kontraesan guziekin?

Ez ote da garaia norberak bere buruari eta komunitateak bere baitan planteatu dezan zer nahi duen?

Zein da gure kulturari doakion izaera intimoa?

Gure hizkuntzak maitasuna irakurtzeko, ulertzeko eta berrasmatzeko gaitasuna eta aberastasuna taularatu nahi dugu. Barne konflikto ikaragarriak argitaratuz, maitasunez eta umorez, gure buruari eskaini nahi diogu merezi dugun begi kliska eta besarkada.

Euskal Herria utopiaren lurralde bat izan baldin bada urteetan, ez ote dugu intimotik asmatzen hasi behar?

Zer da intimoa baino politikoagoa maitasuna ez bada?

03. ANTZEZLANA

“Bi gizabanakoren arteko harmonia ez da sekula eskainia,
konkistatu behar da etengabe.”
“Ezkontzaren printzipioa lizunkeria da, bere baitarikako oldar batean
oinarritutakoa betebehar eta eskubidez bestelakatzen duelako.”

Simone De Beauvoir

LEHEN URRATSAK

Ikuskizun honekin, natura, estetika eta kulturaren arteko talka agerian ezarri nahi genituzke.

Ekintza, natura salbaienean garatzen da, mendian, oihanean. Baina argi da norberak molde biziki desberdinean bizi duela natura deitu ohi duguna. Gure hezkuntzaren betaurrekoekin, natura, ongi izatearekin edo arrisku primitiboarekin ulertzen dugu. Gure izaera primitiboak beldurtzen gaituelako ere bai.

Antzerkiak espazio sinboliko bat proposatzen duenez, ez gara errealismoan murgilduko.

Hipotesia bat planteatuz, bideoa izanen dugu eszenografiaren ardatz nagusia: natura eta artifiziala buruz buru jarritz, pertsonaiak estoka batean jarriko ditugu.


Natura filmatuz eta proiektatuz, nahasiko dugu protagonista bakoitzaren oroitzapen gordetuenarekin, amets eta ilusioekin.

Norberak andeatutako neska edo mutikoa hor du beti, barne barnean, eta norbanakoaren paradisu galdua irudikatzen saiatuko gara.

Kantuz eta irudiz, ikusleari bere lekua eskaini nahi genioke, hats hartze poetikoak minez, pozez, damuz edo ilusioz josiz.

AMUA

ERREFERENTZIAK



AMUA

DRAMATURGIA

Errauntsak, Hamlet, Francoren Bilobari Gutuna, Zazpi Senideko eta Zaldi Urdina antzezlanen ondotik, txikitik idazteko premia berriz ere etorri zaigu.

Istoria sinplea baldin bada berez, ekintzak gordetzen duena mundu bat da. Ondoeza eta oinaze guziak ezin dira hitzez marraztu.

Hitzak berak ulertzeko molde asko dagoelako, eta bizitza bera gaizki ulertu handi batean oinarritua dagoelako.

Idazkerak isiltasunari leku berezi bat emanen dio: ez duguna erran, ezin dena erran, eta sekula erraiten ausartuko ez garena agerian uzteko.

Debekuak, isiluneak, lapsusak eta kantuek markatuko dute antzezlanaren erritmoa. Pertsonaiak egoera jasangaitz batean murgilduz, maskarak kentzera bortxatuak izanen dira. Bakoitzak erran, pentsatu eta egiten duenaren arteko distantzian, barne konfliktoak ez lehertzeko, ukapenean autokonbentzitzen saiatuko dira.

Umorea doinu orokorra baldin bada ere, norbera bere pertsonaren izaera basatiaren ondotik pasatzeko arriskuak eta arrangura nagusituko dira. Eta galdera hauek tartean: utopiak merezi digu? Noiz abandonatzen dugu gure burua erosotasunaren besoetan, traizio txikiz, pausoz pauso, garena ukatu arte?

Mundua ezin badugu aldatu, gu aldatzen ahal gara?

AMUA

IDAZKERA

Feminismo garaikideak jorratzen dituen gaiak eraginda, intimoa eta kezka politikoak gurutzatzeko, idazkeraren lehen urratsetik hasiko dugu pentsalariekin elkarlana.

Lorea Agirre Dorronsoro, Mari Luz Esteban, Zaloa Basabe Gutierrez, Oihane Ruiz Menendez, Irati Mogollon Garcia, Leire Milikua Larramendi, Ula Iruritagoiena Busturia, Jone Arrazola Maiztegi, Nora Salbotx Alegria eta Jone Miner Aginagak Jakin Aldizkarian argitaratutako saiakerek eman digute gaien zutabe sendo bat:

Erromantizismoa, natura eta kultura, hezkuntza eta emantzipazioa, generoen eraikuntza, hizkuntzak eta sinboloak...

Gaur egun ezagutzen dugun maitasun eksklusiboa neolitikoaren herentzia bat da: gizadia ehizaz eta bilketaz bizi zenean, ez zuen gorputzen jabetzarik behar. Laborantzaren hasierarekin, lurraren jabego pribatua belaunaldiz belaunali segurtatzeko, emazteak, eta bide beretik hurrek ere, gizon bakar baten esku egon behar zuten. Espazioak eta maitasunaren propietateak denboran iraunarazteko, abizen bakarra behar zuen, gizonarena.

Eta gaur egun zer? Jabego pribatuaren zaindarien maitasun burgesaren ereduak babesten dute, halabeharrez iruzurra eta gezurra eginez, eta aberastasunik gabekoentzat idolatriaren ereduak da nagusi, eta hor sartzen da erlijioa, kirola eta zine izarren sistema.

04. MEDIAZIOA

Antzerkia eta hezkuntza: bi mundu. Elkarren osagarri diren bi mundu.

Haurtzarokoa, nerabezarokoa eta gaztarokoa garai berezia da, norbanakoak nor diren eta nor izan nahi duten adierazteko garaia. Eta ikuspegi horretatik antzerkia bitarteko ideala da. Ez dizkiogu ikusle gazteari antzerki obrak ikusteko aukerak eskaintzen pertsona gisa "hezteko", ezta ikusle "on" bilakatzeko ere. Gure egiazko eginbeharra, "kalitatezko" obra batek eskaini ditzakeen plazer, emozio eta gogoetak bideratzea da. Bere baitako begirada eta bide batez inguratzen duen munduarekiko duen begiradari buruzko hausnarketa egin dezan. Etorkizuna eraiki behar da eta behar dituzten tresnak eskaini behar zaizkie. Jokoa da gure eremua, plazera, horrek indarra emanen dio, eta are gehiago euskaraz eginez. Orduan, gure hizkuntzari balio erantsi bat emanen diogu. Euskaraz egiten duguna, euskaraz soilik egin dezakegu. Sormen esparrua berriz asmatzeko aukera irekia da, eta paradaz jabetu behar dugu: idazkera, irudimena, gorputza, elkarbizitza. Horrek animaziotik urruntzen gaitu, sormen partekatutik hurbiltzeko, artearekiko lotura afektiboa gauzatzeko aukera eskainiz.

Antzerki programatzailer eta antolatzaileek ikastetxeekin zuzenki lotura egitea litzateke bide eraginkorrena «AMUA» antzezlana aurkeztuz eta bide batez ikastegiko hezkuntza proiektuan artea txertatzeak duen garrantziaz eta indarrak jabetzea. Eta hortik aitzina, guk hartuko genuke erreleboa.

"AMUA" ikuskizunarekin batera Axuten webgunean atal berezi bat sortuko dugu, eta bertan gure sorkuntzaren ikerketa prozesuan esanguratsuak izan diren hainbat material eskegiko: artikulak, filmak, argazkiak... Webguneko ataleko materialarekin landu daitezkeen gaiak zerrendatu eta hauek lantzeko moduak proposatzeko, gida pedagogiko bat osatuko dugu. Honen helburua, irakasleek emanaldia aurretik edo ondotik maitasunaren gai korapilatsua eta arteak egunerokotasunean duen garrantzia autonomiaz jorratu ahal izatea litzateke (gure lankideak tresna honen erabilpena bideratzen laguntzeko prestutasuna izanen du interesa duten irakasleekin).

"AMUA" lantaldeko sortzaile batekin ikasleentzat antzerki tailer txiki bat ikastetxean berean antolatu daiteke ere bai. Bide honen azken helmuga, ikuskizuna ikustea litzateke. Gazteak antzerkiarekin buruz buru jarri nahi dituen dinamika berri baten atarian gaude. Ikasgelan bertan, ikastetxean bertan eta antzokietan ere bai. Hiru espazio horiek sinbolikoak direlako, gazteek beharrezkoak dituzten transmisio guneak.

05. FITXA ARTISTIKOA

ZUZENDARITZA: Ximun Fuchs

KOREOGRAFIA: Philippe Ducou

IDAZKERA: Arantxa Hirigoyen, Maite Larburu, Manex eta Ximun Fuchs

AKTOREAK: Maite Larburu, Manex Fuchs, Ximun Fuchs

MUSIKA: Maite Larburu

ESZENOGRAFIA ETA JANTZIAK: Fran Dussourd

ARGIZTAPEN DISEINUA ETA TEKNIKA: Aitz Amilibia

SOINU DISEINUA: Philippe Barandiaran

BIDEO SORKUNTZA: Eñaut Castagnet

ARGAZKIAK: Ainhoa Resano

DISEINU GRAFIKOA: Roberto Quintana

EKOIZPENA: Iasone Parada, Argi Perurena, Mikel Unamunzaga

BANAKETA: Irantzu Azpeitia

MEDIAZIOA: Arantxa Hirigoyen

AURKEZPENAK



XIMUN FUCHS

Joan den mendeko 74an sortua, Bordeleko unibertsitatean antzerkia ikasi du. Europako bideak zeharkatu ditu euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz (Euskal Herria, Frantzia, Alemania, Ingalaterra, Espainia). Hogei eta bost urtez, bere artea antzerki mugalari, aktore, zuzendari, musikari, kamioi gidari, teknikari, ekoizle, banatzaile, zinegile edo irrati kronikari bezala eramaten saiatu da. Axut! Kolektiboa aniarekin batera sortu du 2018an; lan kolektiboak bultzatzen ditu erabaki iraunkorrak eta ibilbide artistikoak aberasteko. Tim Robbins, Georges Bigot edo Cesar Brierekin lan egin du, eta euskaraz "Juglarea Puta eta Eroa", "Errautsak", "Hamlet", "Francoren Bilobari Gutuna" eta "Zaldi Urdina" antzerki obrak zuzendu.

Orain, euskal antzerkian (Axut! Kolektiboa) eta euskal zinean (Gastibeltza Filmak) eragitea erabaki du bete betean; gure herrian, gure hizkuntzan eta gure ametsetan, lehentasunez bizitzeko, sortzeko eta ekiteko. Fassbinder eredutzat hartuta, "gizartearen idazkari" izateko xedea du, euskal gizartearena.

AMUA



MAITE LARBURU

1979an Hernanin sortua, Maite Larburu musikari polifazetiko da. Biolin jotzaile izateaz gain, -Europa erdialdeko antzinako musika zirkuitoan egiten du lan-, kantu sortzailea ere bada. Neighbour bikotearekin kaleraturiko bi diskek egin zuten Larbururen kantautore alderdia ezagun Euskal Herrian (Ura patrikan, 2013 eta Hau, 2016). 2019an, ordea, bere lehendabiziko bakarkakoan eman du aditzera: Hezurren azpian. Lan Honek 2020ko Musika Bulegoa saria jaso du eta estatu espainiarreko musika independente sarien 2020 edizioan (Premios MIN), euskal album onenaren Etxepare sarirako izendatuetako bat da. Laburki, batzuetan, bere burua 21garren mendeko trobadore moduan irudikatzea gustatzen zaio; baina badaki hori irudimen kontua besterik ez dela. Maite Larburu zure antzeko piztia bat besterik ez da. Eta 18 urtez Amsterdamen bizi ondoren, Hernanira itzuli da.



MANEX FUCHS

1975ean sortu, eta Baxe Nafarroan hazi zen. Bordaleko unibertsitatean arte dramatikotuan lizentziatu ondoren, antzezle ofizioan hasi zen euskaraz, frantsesez eta noizean behin gaztelaniaz. Kide zonbaitekin Le Petit Théâtre de Pain taldea sortu, eta mende laurden batez, antzerki ibiltaria bere alor guzietan obratu du: jokoa, dantza, musika, idazkera, zuzendaritza, kudeaketa. Ibilbide horretan, Georges Bigot, Tim Robbins eta Cesar Brierekin elkarlan zorbait burutu ditu. Euskal antzerkia jorratzeko, Antton Lukuren transmisio lana izan du oinarri. Donostia Hiria saria jaso zuen, bi aldiz antzezle gisa (Errautsak, Frankoren bilobari gutuna) eta behin taula zuzendari gisa (Publikoari gorroto). Gaur, Ximun Fuchsekin batera, Axut kolektiboaren sortzaile eta eragileetako bat da, eta Iparraldeko Hirigune Elkargoarekin euskal antzerkiari dedikatua den lurralde proiektu bat eramaiten dute. Bestalde, telebistarako serie baten 15 kapitulotan aritu da aktore gisa, baita zinerako Ximun Fuchs eta Eñaut Castagnetek zuzendutako "Non" pelikulan ere, (Donostiako Zinemaldian Zinemira saileko gidoi onenaren saria). Film laburrak egin ditu, jokolari edo zuzendari laguntzaile gisa. Eredu horretan, bost kiderekin batera, zinerako ekoizpena eta banaketaz arduratzen den Gastibeltza Filmak enpresa sortu dute.

06. EGUTEGIA

Antzerki taldearekin aurreikusitako epeak eta adostutako lan saio egutegiak hauek izango dira:

Egonaldiak:

2020ko Maiatza, 4 egun - Hendaia.

2020ko Ekaina, 3 egun - Irati.

2020ko urria, 4 egun.

2020ko azaroa, 5 egun - Baiona.

2020ko abendua, 5 egun - Ziburu.

2021eko urtarrila, bi aste – Hendaia.

2021eko otsaila, hiru aste- Larzabale.

ESTREINALDIA

2021/03/05-06 > Herriko Sala / **LARZABALE** (Baxe Nafarroa) / 3 emanaldi

BIRA

2021/03/11-12 > Mendi Zolan/ **HENDAIA** (Lapurdi) / 4 emanaldi

2021/03/16 > Colysée / **BIARRITZE** (Lapurdi) / 1 emanaldi

2021/03/19 > Herriko Sala / **ZIBURU** (Lapurdi) / 1 emanaldi

2021/03/23-tik 2021/03/27-ra > Etxepare Lizeoa / **BAIONA** (Lapurdi) / 8 emanaldi

2021/04/03 > Biletxea / **BAIGORRI** (Baxe Nafarroa) / 1 emanaldi

2021/04/04 > Harriet Baita / **DONIBANE LOHIZUNE** (Lapurdi) / 1 emanaldi

2021/04/05 > ADEL / **AULESTI** (Bizkaia) / 1 emanaldi

08 ET 09/04/2021 > Théâtre Harri Xuri / **LOUHOSSOA** (Lapurdi) / 3 emanaldi

2021/04/16 > Biteri Kultur etxea / **HERNANI** (Gipuzkoa) / 2 emanaldi

2021/05/07 > Lizeo antzokia / **GERNIKA** (Bizkaia) / 1 emanaldi

2021/05/09 > Niessen / **ORERETA** (Gipuzkoa) / 1 emanaldi

2021/06/04 > Festival Pinpulka / **ESPELETTE** (64) / 1 emanaldi

2021/10/02-03 > Gazteszena / **DONOSTIA** (Gipuzkoa) / 2 emanaldi

2021/10/06-07 > Arriaga / **BILBAO** (Bizkaia) / 2 emanaldi

2021/10/14 > NAE / **IRUÑEA** (Nafarroa) / 1 emanaldi

2021/10/15 > Arriola Antzokia / **ELORRIO** (Bizkaia) / 1 emanaldi

2021/10/16 > Kultur Etxea / **BERRIZ** (Bizkaia) / 1 emanaldi

2021/11/10 > Herriko Sala / **LARRESORO** (Lapurdi) / 1 emanaldi

2021/11/14 > Gezala Auditoriuma / **LEZO** (Gipuzkoa) / 1 emanaldi

07. KONTAKTUA

Irantzu Azpeitia
(0034) 615 779 511
info@artedrama.com

Ximun Fuchs
(33) 06 78 19 23 97
info@axut.eus

**AX
UT!**

**Arte
Dra
ma**
arte
eszenikoan
plataforma